

Neguko festak Idiazabalean



Arg.: Fotoetxe

*Urte berriz ere: hitza bihotzari,
euskara bizitzari*

Matrikulazioa, otsailaren 1etik 12ra

BEASAINGO IKASTOLA

Urbialde enparantza, 2 BEASAIN

© 943 88 96 17

e-mail: beasain@ikastola.net



GARABI

MANTENIMIENTO, S. L.

Tel.: 943 187 300


Faxa: 943 187 357

Ezizolatza industrialdea - B partzela, 1 Zkia.

IDIAZABAL



- Konponketak
- Mantenimendua
- Zubi-garabi eta polipastoen aldaketak



AMPO S.COOP
IDIAZABAL Gipuzkoa



AMPO S.COOP
BEASAIN Gipuzkoa



ALTZAIRU FUNDIZIOA

- Moldaturiko piezak.
- Zentrifugaturiko Tuboak.
 - * Aleatuak.
 - * Herdoiltezinak.
 - * Berogaitzak (Errefraktarioak).
 - * Nikel oinarritutako aleazioak.

AENOR-ek onartutako enpresa ISO 9002

☎ 943 18 80 00 - Faxa: 943 18 81 30

BALBULAGINTZA

- AMPO Koperatibak balbulagintzarako duen Dibisioaren merkatal izena: POYAM da.
- Bertan, 2" diametro duten balbuletatik 48" arterainokoak egiten dira.
- Balbula hauek, Petrolio, Petrokimika, Energia, Alumina, Kimika Industrietarako eta Kriogenika Lantegietarako, Industri nahiz etxeetarako gas banatzaileentzat egiten dira.
- Honako etxe hauek homologatuta: EXXON, TEXACO, AMOCO, CONOCO, DUPONT, B.P., REPSOL, ENA-GAS, GAS EUSKADI.

☎ 943 88 60 50 - Faxa: 943 88 88 47

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1

(Postetxe gainean)

124 posta-kutxa

20240 Ordizia

Tfnoa: 943 88 96 12

Faxa: 943 88 27 19

<http://www.ordizia.net>

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Argider Mujika

Erredakzio Batzordea:

Mikel Albisu, Joseba Telleria,
Ane Martin, Loinaz Agirre eta
Estitxu Imaz.

Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak:

Joseba Telleria, Aitor Calvillo,
Xabier Urteaga, Urko Irastorza,
Saroï Jauregi, Iñaki Gurrutxaga,
Edurne Albizu, Agurtzane Biku-
ña, Maizpide Euskaltegia eta Be-
asaingo Ikastola.

Fotokonposizio eta maketazioa: GOIERRITARRA.

Inprimaketa: Gertu inprimategia
(Zubillaga auzoa, Oñati).

Tirada: 7.400 ale.


ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, aldiz-
karian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



GOIERRITARRA eta Ordizia Interneten

Amaia Blazquez eta Aitor Esnaola ordiziarren eskutik, GOIERRITARRA aldizkaria eta Ordiziari buruzko informazioa Interneten daude, <http://www.ordizia.net> helbidean, Diseinuweb enpresari esker. Bi ordiziar gaztek osatu dute enpresa hau. "Nazioarte mailan Internetek hartu duen garrantzia ikusirik, gure ingurua atzera gelditu ez dadin Diseinuweb enpresa gazte hau komunikabide hau bultzatu eta Ordiziarren berri zabaltzearen ordizia.net sortu dugu", argitu digute Blazquez eta Esnaolak.

Ordiziaren ezaugarri orokorrak ezagutzera eman eta gero eta eguneroko albiste gehiago sartzera dute helburu, herritarren inplikazio eta laguntzarekin. "Proiektu irekia da, era guztietako iradokizunak edo sugerentziak onartzen dira, informazio berria etengabe sartu nahi dugu. Artikulu, iritzi, kritika

pertsonalak, beti ere Ordiziarekin lotutakoak, argitaratzeko aukera ere ematen dugu".

Albisteak, Josetxo Marin, Fotoetxe eta Foto Sistemaren argazkiak, jatetxeak, Ordiziako azoka, Ordiziako historia, iradokizunak, hileroko zozketa eta GOIERRITARRA aldizkaria atalak dira momentuz, ordizia.Net orrian aurki daitezkeenak. Publizitatea ere sartuko dute. Aurrera begira, komertzio, enpresa eta aisialdi gidak egin nahi dituzte. Beste helburu bat ere badute ordiziarrek; helburu berarekin, Beasaingo web orria sortzea.

Interneten informazioa edo publizitatea jarri nahi duenak, 630057237 telefonoa edo webmaster@diseinuweb.com e-maila dauka harremanetarako. Beste helbide bat ere badu Interneten: <http://www.diseinuweb.com>.

BOTA BERTSOA



Xabier Narbarte

Goierriko bertso-eskolako
ikasle ohia

Santa Ageda bezpera

Doinua: hamarreko
haundia

Euskal Herriko ohitura dugu auzoz auzo, herriz herri ohitura horren eredu ere bihurtzen zaigu Goierri. Blusa, zapia eta makila kopla alaienak sarri taldeak doaz aterik ate eskea beren oinarri... esku zabalik bada etxean badu dirua non jarri.

Ni ere ezin naiteke hartu normaleenaren guardian baizik umore alaienaren piper eta ausardian, Santa Ageda nere santua bihur nezake agian honen aguro ez dut lan egin joan deneko aspaldian, lehenengo aldiz idatzi ditut bi berto ordu erdian.

GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



Emakume presoen giza eskubideak

Gu, preso gauden emakumeok, itzaleko ahotsa gara. Mendearen mendetan, ahotsa kendu diote emakumeari, eta, gaur egun oraindik, eskubiderik funtsezkoenak ere ukatzen dizkigute.

Denbora luzean zehar, giza eskubideak gizonezkoen kontua izan dira soilik. Frantziako gizarte aberats eta oparo horretan, egunero zapaltzen dituzte giza eskubideak leku askotan; espetxea dugu leku horietako bat.

Hitzaldi eder ugari entzun ditugu giza eskubideen urteurrenaren karietarak; guk, ordea, egintzak nahi ditugu. Kontuan izanik ez dela zilegi inori bere duintasunaren kontrako traturik ematea, galdegiten dugu bisita bakoitzaren ondoren

presoa goitik beheraino arakatzeko ohitura bertan behera uztea eta, orobat, zigor-ziegak ezezte. Kontuan izanik adierazpen-askatasuna ezin ukatuzko eskubidea dela, auzibidea amaiturik gure gutunak zentsuratzeari uzteko eskatzen dugu. Kontuan izanik gizaki orok defentsarako eskubidea duela, zigor-jakinazpen bakoitzaren ondoren espetxean bertan egiten dituguten sasiepaiketan abokatu bat izatea galdegiten dugu. Kontuan izanik espetxeetako lana esklabotasunaren parekoa dela, sindikatuetako hitzarmenen arabera gutxieneko soldata jasotzeko eskubidea galdegiten dugu. Espetxeak gizartea zertan den erakusten du.

*Maria Jesus Arriaga,
ordiziar presoa Fleuryn*

Goierri lanbide eskolan bai euskarari?

Goierri lanbide eskolako ikasleok jakinarazten dizuegu Euskal Herriak euskeraren aldeko apostu garbia erakutsi duen honetan, ezin ixil gaitezkeela Goierri lanbide eskolan euskeraren normalizazioa oztopatzen duen egoera pairatzen dugunean. Hori dela eta, publiko egin nahi dugu ikastetxe honetan euskaraz ikasteko jartzen dituzten trabak.

Jakina da Goierri lanbide eskola bailara osoko ikastetxe "tekniko" bakarra dela eskeintzen dituen modulo eta zikloak kontutan harturik. Baina horren jakina ez dena: ziklo, modulo eta jada desagertzera doan lanbide heziketan euskaraz ikastea ezinezkoa gertatzen dela da. Arlo hauek jorratzeko be-

harrezkoa den materiala espainol hutsez dagoela salatu nahi dugu.

Hau honela izanik bihar-ko egunean lan merkatuan ezin izango da euskeraren erabilera normalizatu bat inoiz lortu, honek ere euskeraren biziraupena baldintzatzen duen erik.

Era berean salagarria iruditzen zaigu Goierri lanbide eskolako egoera, urteetako borroken ondoren ere, euskeraren normalizazioa ziurtatuko duen plangintzarik ez baitago. Bestela nola uler daiteke arlo hauetako material euskaldunik ez bermatzea Goierri lanbide eskolan?

Euskaraz ikastea lortuko dugu!

*Goierri Lanbide Eskolako
Ikasle Abertzaleak*

JAKINTZA IKASTOLA

Altamira auzoa ORDIZIA ☎ 943 16 05 40 Faxe: 943 16 07 90 E-mail:ordizia@ikastola.net

- ⇒ Herrigintzatik sortutako eskola eredu
- ⇒ Kalitatezko euskal eskola
- ⇒ Bertatik gestionatzen dena
- ⇒ 2tik 18 urtetara eskola berean
- ⇒ Euskaraz bizi
- Eleaniztasuna: 4 urterekin hasita
- ⇒ Zerbitzu interesgarriak goizeko 7etatik arratsaldeko 7etara (haur zainketa, bertako jangela eta autobusa)
- ⇒ Deitu eta zurekin elkarriketatuko gara (943 16 05 40)



TXANDAKA

Hesateak beharrezkoak omen

Nork atsegin ditu mugak? Nori gustatzen zaizkio hesateak, maratilak, kris-keteak, kandaduak, katea...? Gehienetan derrigortzearekin, zigorrekin, ukoekin... erlazionatzen dira, baina (zenbait kasutan) beharrezkoak dira. Nola ezkontzen da hau?

Ulerterreza da ulertu nahi duenarentzat, baina, "ikusi nahi ez duen itsua baino handiagorik ez dago" esan zuek ez zuen arrazoirik falta.

Hitz-aspartu hau zuri zuzentzen dizut ehiztari, edo mendizale, baita basoan lanean aritu ohi zaren horri ere, baina batik bat, zuri, irakurle, zuk ere hesiak itxita jarraitu dezaten zerbait egin baitezakezu, edo agian behin-betiko itxiturak apurtu ditzagun esku bat bota zenezakelako.

Zerbait: (bakar bakarrik), mendira joatean eta hesi bat zeharkatzean aurrez zegoen bezala utz dezazun eskatu nahi nizuke, besterik ez. Ez zaitez alferria izan.

Jatekoa urritu den honetan, basoan dabilzan abereak noraezean tontorretatik lautadetara jaitsi ohi dira, eta errepidera irteten ez diren bitartean hor nonbait! burukomina, abere horien nagusiek bakarrik izango baitute.

Etxegarate bezala errepide bazterretan, asko dira abereekin gorriak ikusi dituztenak, istripuak... ondorioz hesateak jarri bide ziren lekuri arriskutsuenetan. Orduz gero hamaika aldiz konpondu dira Etxegarate bideko "langak" baina alferkeria baino gaitz okerragoa duenen batek, nahita apurtu eta itxi ezinda uzten omen ditu.

Abereren batek istripu larriren bat eragin arte beti egongo dira aurreragoko lanak.

Nik ere ez ditut hesiak maite, baina hauek desagertzekotan Etxegarate bikoiztu ez, itxi egin beharko genuke.

Aloña Galarraga



Lehengo San Blasak ala oraingoak dituzu nahiago?



Jesus Mari Collado
67 urte, erretiratua
Idiazabalgoa

Aintzinakoak. Oso galduta daude gauzak. Orain diru asko ordainduta dantz taldeak ekarri behar dira, baina gero jendeak ez du dantzarik egiten. Tabernak beteta egoten dira. Lehengoak sanoagoak ziren.

Jose Ezizola
70 urte, erretiratua
idiazabaldarra

Beti aldatzen ari dira. Zaharra bota eta berri bila ibiltzen dira gazteak. Lehen dirurik ez zegoen. Kandela bedeinkazioa, errokilak... jende asko joaten zen mezataria. Zegoenarekin konformatzen ginen. Gaur egun dirua dago.



Luis Elorza
55 urte, mekanikoa
Idiazabalgoa

Lehenagokoak, gazteagoak ginen eta! Lehengo erako musika gustatzen zait eta dantza gehiago egiten zen. Dantzagatik harremanak politagoak sortzen ziren neska-mutilen artean. Orain parranda gehiago egiten da.



Sagardotegia

aulia

Aulia-enea

☎ 943 80 60 66 LEGORRETA

KALITATEKO

EUSKAL OKELA

LUIS MARI HARATEGIA

Festa onak pasa!

Nagusia, 16 ☎ 943 18 72 37
IDIAZABAL

ANGEL IMAZ

**PINTURA
eta
PAPERGINTZA**



☎ 943 18 70 49
Ondramuño etxea IDIAZABAL



**AVICOLA
SAN BLAS, S.L.**

- Arrautza salmenta
- Bertako produktu ona
- 30 urteko esperientzia

Atxu etxea, 27 ☎ 94318 74 58 (oilategikoa) - ☎ 943 18 75 03 (etxekoa) IDIAZABAL

ZINEA

GOIENIZ:

Otsailak 11, 'Los ladrones', 21:00etan, Usurbe antzokian. Ikus koadroa.

ORDIZIA:

'La mascara del zorro'. Ostirala 29: 22:15, larunbata 30: 19:30 - 22:15; igandea 31: 16:45 - 19:30 - 22:15; astelehena 1: 19:30.

'Los ladrones'

André Téchiné
(Frantzia, 1996)

Itxuraz polizia eta lapurren pelikula baten aurrean gaude, zein baino zein maltzurragoak. Alabaina, senideen arteko loturen eta hausturen inguruko istorioa da eta zazpi urteko ume baten gora-beherek piztuko dute benetan ikuslearen arreta, familiaren konplizitatea, nola garatzen den sexuaren mundu arraroa, "ondo" bizi izateko lan nekagarria... Gau batez, Justin esnatu eta bere aita hil dela jakingo du; filma aurrera joan ahala izkutuko egia agertuz joango da, bere aitak helduen munduan zituen benetako aktibitateak, alegia.

Téchinéren lan bikain honetan maisuki eramaten gaitu sentipen eta delituetan zehar. Catherine Deneuve izarrak eta D. Auteril aktore baliozkoak diztira gehitzen diote film entretenigarri honi.

BEASAIN:

'Juegos salvajes'. Ostirala 29: 22:15; larunbata 30: 22:15; igandea 31: 19:30 - 22:15; astelehena 1: 19:30.

EUSKARAZKO ZINEA:

BEASAIN:

'Jack, Amazonaseko errege'. Otsailak 10, goizeko 9,30etan, Usurbe Antzokian.



BERTSOAK

IDIAZABAL:

Otsailak 4, Andoni Egaña, Sebastian Lizaso eta Angel Mari Peñagarikano, plazan, eguerdian.

MUSIKA

BEASAIN:

Otsailak 2, Donostiako Kamara Korala. Egitarau zabala: eliz polifonia, pieza klasikoak, folklorea, etab. Loinazko San Martin baselizan, 20:00etan.

Otsailak 6, Easo abesbatzaren kapera gregoria-noa, Andre Maria Zerutuaren parrokiaren, 20:00etan, Kutxa Fundazioak babestuta. Aita Xabier Irastortza izango da zuzendaria.

Otsailak 11, Loinatz Musika Eskolako bandaren birliliketa herriko kaleetan zehar.

IDIAZABAL:

Otsailak 2, Joseba Iparra-girre trikitilaria, 23:00etan, plazan.

Otsailak 4, Etxakit taldea, plazan, 23:30ean.

Otsailak 5, Joselu Anaiak taldea, 01:00ean, plazan.

Otsailak 6, Arkaitz taldea, 23:00etan, plazan.

Otsailak 7, Joselu Anaiak, 19: 30ean, plazan.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Otsailaren 2tik 14ra arte, Maria Angeles Ruiz de la Arena margolariaren erakusketa, Usurbe Antzokian.

Otsailaren 19ra arte, Aterpe Pintura lehiaketako irabazle guztien lanak ikusgai, Aterpe Tabernan.

Otsailean zehar, Zinema taberna: 'Hiru belaunaldi' izenburupean, Feliciano, Victoriano eta Fernando Laborderen argazkiak izango dira ikusgai, Zinema tabernan.

ORDIZIA:

Otsailaren 12ra bitartean, Olatz Goibururen pintura erakusketa Barrena Kultur etxean.



MUJIKA LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarateko, pintxoak

☎ 943 88 20 07
Nagusia, 27 BEASAIN



ARESO kalea, 7 ☎ 943 88 96 86



Nafarroa
Etorbidea, 9

☎ 943 88 94 82

BEASAIN

Ezkontza erreportaiak
%25eko

DESKONTUAREKIN

**LAZKAO
ARGAZKI**

BESTELAKOAK

BEASAIN:

Otsailak 7, Txirri, Mirri eta Txiribitoen pailazoen 'Barre egin' ikuskizun berria eta 'Tortolika eta Tronbon' filmaren proiektzioa, Usurbe Antzokian, 16:00etan eta 17:30an. Sarrerak salgai aldeztuak.

IDIAZABAL:

Otsailak 5, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen 'Baserrian' ikuskizuna, Zelaako kiroldegian, 17:30ean.

Ikasi - Makusi

Ordiziako AEK, Hitzaro, Euskal Herrian Euskaraz, Goierriko Bertso Eskola eta Goierriarrak Kultur Elkartek Ikasi-Makusi egitasmoa jarri dute abian. Besteak beste, hamabostean behin kultur ekintzak antolatzea dute helburu. Hurrengo alean izango duzue saio honi buruzko informazio gehiago, baina datozen hamabostaldirako antolatutako ekintzak hauek dira:

● **Otsailak 4:** Ikus-entzunezkoa: 'Gipuzkoako jaiak: negua'. Barrena Kultur Etxean, 19:00etan.

● **Otsailaren 15etik 28ra:** Ikastaroa: Internet eta posta elektronikoa. 8 orduko ikastaroa izango da.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Atorrasagasi (Bustuntza - Ordizia) 943882938.

Urtarrilak 30-31: Cuesta (Nafarroa Etor. 39 - Beasain). 943880587.

Otsailak 6-7: Arriola (Plaza Nagusia - Ordizia). 943882628.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Salerosketak:

□ Ford Fiesta salgai, SS-AM. 943 881038. 18:30etik aurrera.

□ Garajea salgai Beasainen, Errekarte kalean. 943 160226. 9:30etik 13:30era eta 15:30etik 19:30era

□ Compaq ordenagailua salgai. Monitora eta prozesadorea biak bat dira, oso leku gutxi okupatzen du. Prezio onean. 943 187364.

□ Kotxea salgai, SS-AL matrikula. Egoera onean. 943 881938. 20:00etatik aurrera deitu.

□ Boxer arrazako txakurkumeak salgai. Txertatuak eta pedigriarekin. 943 853244 - 608 770651.

□ 10 hilabeteko zezen limousina salgai. 943 800490.

□ Kotxeko irrati kasetea salgai: 6.200 RDS eredua, 12 konpak diskeko kargadorea, lau altaboz, 130 w, hiru biotakoak. Denak Pioneer markakoak eta egoera onean. Guztia 100.000 pezetan. Mikel. 943 885883.

□ Babarrun beltzak salgai. 943 881802.

□ Enziklopedia salgai, 9 aleduna. Gaiak: familia eta medizina, belar medizinalak, drogak: ezagutu eta prebenitu. Gaixotasun askoren prebentziorako ezin hobe. 943 80 63 64.

Lana:

□ Etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko prest nago. Euskalduna eta esperientziaduna. Garbiketa lanak ere egingo nituzte etxe eta tabernetan. Elena. 943 889521.

2. MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK



IKASTAROAK	MATRIKULA EPEA	MAILAK
2, 3, 4 eta 5 ordu goizez, arratsaldeztan eta gabeztan	Otsailaren 11 arte	Euskalduntze Alfabetatze Hobekuntza EGA

INFORMAZIO GEHIAGO

ORDIZIA: Santa Ana Ikastetxea ☎ 943 88 91 74

BEASAIN: Kale Nagusia, 5 - 3. ☎ 943 88 93 40

LAZKAO: Elosegi, 16 - 2. ☎ 943 88 91 74

Udalak ikasleei matrikula subentzionatuko die.

IBAI-ONDO



**ZURGINTZA
ALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Antzizar Auzoa, z/g
☎ 943 880543 BEASAIN

UNIBERTSITARIOAK:

✓ Behar duzuen laguntza Beasainen.

✓ Ordutegi zabalak goizez eta arratsaldeztan.

IKASTEK AKADEMIA

☎ 943 160 120
Joan Iturrilalde, 5 BEASAIN

Abenduaren 18tik urtarilaren 3ra Beasainen antolatu ditugun ekintzetara hurbildu zareten guztioi gure eskerra emanez hasi nahi genuke ekintza guztion balorazioa.

Erronka haundi eta eskerga izan da Beasaingo Ikastolarentzat kanpaina honi aurre egitea. Erronka ezin haundiagoa, izan ere, ikastola txikia garelako, eskubete lan hartu arren, 150 familia eta 18 langile artean egitekoari erantzuteko beste askoren laguntza ere behar izan dugulako. Erronka haundia, gure baliapideak erabiliz sor genezakeenak (irudiak, hitzak, ahotzak...) egitarauaren maila berekoa behar zuela jotzen genuelako. Erronka haundia, gure diru-gabeziatik abiatuz inguruko entresetan bilatu behar izan dugulako, aurrena, gure asmoak betetzeko derrigorrezko genuen dirulaguntza. Erronka haundia, goi-mailako musikari eta kirolariek batera, Beasain eta Goierriko musikari, kirolari, dendari, eta artisauen berri egoki zabaltzea zelako gure apustua. Erronka haundia harrotasunez aurkeztu dugun egitaraua, harrokeriatzat hartuta izaterik ez genuelako nahi.

Urte berriz ere: hitza bihotzari, euskara bizitzari

Erronkei aurre egin, eta Beasainen garrantzi haundiko ekimen bati bultzada eman diogulakoan gaude. Harro gaude, horregatik, baino are harroago sentitzen gara, hau guztia egiten lagundu digun jende andanagatik. Gure karpata eta antolatutako ekintzetara etorri direnek, 20.000 lagunetik gora egiten dut, gainera, ehundaka lagunek eman dute zuten onena eta zekiten guztia kirolean, sukaldean, musikan, artisautzan, komunikabideetan...

Eta jakin, badakigu, jendearengana iritsi bagara, neurri haundi batean, gure lema ziona sinistua izan delako gertatu dela. Inongo proiekturi bultzada emateko aurrena hitza bihotzari eman diogulako. Gure proiektuan ez zegoen Beasaingo Ikastola izendatua

onuradun bakartzat, eta azkenean, hainbeste giza-taldetan bere aportazioa egiten duen jendearen bihoz-kolpea bizkortzeak arindu gaitu, eta azkenean, ahaleginak elkartzen dakien guztia irabazle suertatu da.

Eta ikasi, ikasi dugu, bestetik, euskararen alde zenbat indar metatu behar den, oraindik ere: euskararen arnasbideak errazteko, euskarari bizia emateko, euskara bizitzako alor guztietara hedatzeko. Euskara munduratzeko eta mundua euskaratzen hartutako lanek erakusten digute zein garrantzizkoa den euskarazko auzolana, eta zein garrantzizkoa den, euskaraz ez dakitenekin ere elkarri ulertzeko guneak sortzea, euskararen eremuak zabaldu eta gozatzeko.

Beasaingo Ikastolak plazaratutako erronkari aurre egiten lagundu diguzuen guztioi eskerrak, beraz, eta urte hau aurrekoa baino are berritzaileagoa izango delakoan, gure agurra jaso ezazue, Beasaingo Ikastola eta Andramendi, Irakaskuntza Kooperatibaren izenean.


*Pello Urretabizkaia
Tere Irastortza*

GOIERRITARRA



943 88 96 12

VOLVO



TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

KONTSULTORIO MEDIKU KIRURGIKOA

25 URTE goierritarrei mediku zerbitzu
espezializatu onenak eskaintzen

J.A. Lasa	Kardiologia	C. Poveda	Anatomia patologikoa
J. Alzua	Nerbio eritasunak	R. Lopez	Lan, kirol... istripu sosorpen zerbitzua
F. Arrue	Barne medikuntza Liseri aparatua	R. Garate	
P. Arrue	Urologia	M. Ansa	
B. Aseginolaza	Dermatologia	A. Ubarretxena	Radiologia Ekografia orokorra Ekografia ginekologikoa Zain eta giharre ekografia Titi ekografia, etab.
A. L. de Goikoetxea	Reumatologia Medikuntza orokorra	I. Larruskain	Analisi klinikoak
R. Orus	Medikuntza orokorra	J. D. Gisasola	Errehabilitazioa
J. Igartua	Otorrinolaringologoa	A. Perez	Errehabilitazioa
V. Ormaetxea	Pediatra	L. Azpiroz	A.T.S.
R. Ayllon	Ginekologia		Azterketa Medikoak entrepresentzako seguruentzako. etab.
M. Garcia	Ginekologia		
M. Ruibal	Neurologia		
L. Berdejo	Kirurgia		
A. Galvany	Kirurgia		
A. Telleria	Dietetika-Elikadura		Txekeo, araketak

Nafarroa etorbidea, 25-2 - BEASAIN - Tel: 943 88 57 50 - 943 88 57 54

ERREZETA



Martin Gurrutxaga
Egoki jatetxea
Beasain

LARANJA FLANA

Osagaiak: litro bat laranja ur natural, 6 arrautza gorringo, 200 gr. azukre, arrain isats lamina bat edo gelatina.

Arrain isatsa ur epeletan disolbatu. Laranja ura, arrautza gorringo eta azukrearekin nahastu eta arrain isatsa gehitu.

Prestatutakoa aurretik karamelatutako molde batera bota eta hozgai-luan sartzen da sei orduz. Zerbitzatzeko garaian flana natilla edo chantillyarekin laguntzen da.

AHOLKUA



Maizpide Euskaltegia

Zenbait aditz, tamalez, nahikoa oker, trakets erabiltzen ditugunak gure eguneroko solasaldietan. Hain errotuak, itsasiak ditugu, jabetu ere ez gara egiten gaizki erabiltzen ditugula, egoki eta txukun erabiltzen ditugulakoan gaude.

● **'jo':** "Zeinek jo dizu?", "Jo egingo diat, e!", "Amak ipurdian jo dit", "Lagun batek jo zion"... Honelako esaldiak gaizki daude, oso gaizki. "Zeinek jo zaitu?", "Jo egingo haut, e!", "Amak ipurdian jo nau", "Lagun batek jo zuen"... esan behar da. Norbaitek norbait jotzen du, ez dio norbaiti jotzen. Esaldi hauen atzean edo azpian erdararen eragina nabari da, jakina: "Te voy a pegar", "Me han pegado", etab.

Bestalde, "Ostikada bat jo dit", "Belarrondoko bat jo dit", "Muturreko bat jo dit"... ere gaizki gaude. "Ostikada bat eman dit"... esan behar da. Eskuaz, zapatilarekin... jotzen da, baina muturrekoak, belarrondokoak... eman egiten dira; eta jaso, jakina!

Zenbait aditzen erabilera okerra

● **'gonbidatu':** "Gonbidatuko al didazu zerbait hartzera?", "Taberna honetan gonbidatuko dizut", "Herriko jaietara gonbidatu zidaten"... gaizki daude. "Gonbidatuko al nauzu zerbait hartzera?", "Taberna honetan gonbidatuko zaitut", "Herriko jaietara gonbidatu ninduten"... esan behar da. Norbaitek norbait zerbaitetara gonbidatu egiten du; inork ez dio inori ezertara gonbidatzen.

Bestalde, batez ere testu idatzietan, honelakoak ere irakurri ohi ditugu: "Denak gonbidatzen dira gure herriko jaietara", "Herritar guztiak gonbidatzen dira/gonbidatuak geratzen dira jardunaldi hauetara"... Honelako esaldiei, euskal gramatikaren arauak hankaz gora jartzen ez badituzte ere, erdal usain nabarmenegia darie. Normalagoa da euskaraz, forma 'pasiboaren' edota 'inpersonalaren' ordeztu, "Denok zaudete gonbidatuak", "Denak gonbidatu nahi ditugu", etab. esatea eta idaztea.

● **'bidali/agindu':** "Gaur andereñoak ez digu etxerako lanik bidali"... Honelako esaldiak eskola-umeek, haur eta gaztetxoek, erabili ohi dituzte, batez ere. Eta, agian, irakaslearen batek edo bestek ere bai!

Laburbilduz:

jo: Gaizki: Jo egin didate. Ondo: Jo egin naute.

Gaizki: Ostikada bat jo didate. Ondo: Ostikada bat eman didate.

gonbidatu: Gaizki: Gonbidatu didate. Ondo: Zerbait hartzera gonbidatu naute.

agindu: Gaizki: Etxeko lanak bidali dizkigute. Ondo: Etxeko lanak agindu dizkigute.

Irakasleak ez dio inori etxerako lanik bidaltzen, nola eta haurra ez den etxean gaixorik gelditu. Orduan, beharbada, zorioneko etxeko lanak postaz bidaliko dizkio haur gaixoari, edota beste umeren baten bidez. Irakasleak etxeko lanak agindu egiten ditu, agindu, lanak agindu edo egiteko esaten die irakasleak ikasleei. Hemen ere alboko hizkuntza gain hartzen ari zaigu. Erdarazko 'mandar' batzuetan 'bidali' da euskaraz. Adibidez: Haur bat eskolatik etxera 'bidali' egiten da, eta ez agindu, jakina; gutunak ere 'bidali' egiten dira, eta kontuz!, 'jaso' egiten dira, ez 'hartu'. Etxeko lanak, aldiz, 'agindu' egiten dira, eta haurrek zer erremedio!, egin egin behar izaten dituzte.

EROSKI KAFETEGIA

gosari - merienda
eguneroko menua

☎ 943 88 27 93

ORDIZIA



AGENTZIA

LAZKAO GARAJEA


Senpere Industrialdea
☎ 943 882442 - 943 888901
Faxa: 943 888901
LAZKAO

JOSUNE & KLAUDE

ileapaindegia & edergintza

Edergintza eta ileapaindegia
tratamendu guztiak

Iturtxo, 5 ☎ 943 16 22 56 ORDIZIA



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak

Barandiaran ZERAMIKAK

☎ 943 88 79 72
Senpere, 7
BEASAIN

Hausnarketa eguna, Senideak-ek deituta

Senideak-ek (Presoen sendiartekoen elkarte) deituta, hausnarketa eguna izango da bihar, urtarilak 30. Goierriri dagokionean, herri haue-
tan egingo da:

Ataunen, arratsaldeko 5etan, Udaletxeko Ganbaran; **Beasainen**, arratsaldeko 4,30etan, Udaletxeko Batzar Aretoan; **Lazkaon**, 11etan, Udalatxeko Batzar Aretoan; **Ordizian**, goizeko 11etan, Barrena jauregian; **Seguran**, 11etan, Kultur Etxean; eta **Zaldibian**, 11etan, Kultur etxean.

Euskal presoak Euskal Herrira aldarrikapenarekin hainbat alderdi politiko, sindikatu, elkarte eta herritarrek beraien atxekimendua azaldu izan dute eta guztiei dei egiten die Senideak-ek, hausnarketa bilera horietan parte hartzeko, aurrera begira zer egin daitekeen aztertze-
ko.

Herritar guztiak gonbidatzen dira. Izan ere, Senideak-ek dionez, *"ehundaka mila lagun manifestatu dira, gehiengo sozial, politiko eta sindikalak eskatzen du, gose grebak, era guztietako mobilizazioak, udaletan eta Gasteizko Legebiltzarrean onartutako mozioak, Europar Parlamentuko ebazpenak, Europako Kontseiluaren gomendioak... Zer gehiago egin behar dugu?"*.



Oria ibaia oso kutsatuta

Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako ibaien egoera aztertu du. Oria ibaiari dagokionean, Goierriko zatian, oso egoera ezberdinean dago. Goialdeko ibarreko uraren kalitatea oso ona da. Kalitatea kaskartu egiten da Urtsuaran erre-
kako urak hartzean, Segura eta Zegamako saneamenduaren isurketak daudelako. Hurrengo zatian, Beasain, Ordizia, Ormaiztegi, Lazkao eta beste udalerri batzuetako isuriak hartzen ditu, eta indize biotikoak behea jotzen du eta bizitza arrasto guztiak desagertu egiten dira.

Hurrengo kilometroetan, poliki-poliki hobetzen da uraren kalitatea, eta Legorretatik aurrera arrain populazioak ageri dira, egoerarik txarrenetan bizi daitezkeen espezieak hain zuzen. Ibai bazterreko landareak moztuta daudenez oso ondorio txarrak eragiten omen ditu, habitata eguzki izpien pean baitago erabat, eta horrela, gauez oxigeno kopurua erabat apaltzen da.

Etxegarateren bikoizketaren proiektua onartu da

Gipuzkoako Foru Aldundiak Etxegarateren hirugarren fasearen bikoizketa lanei argi berdea eman die. Maiatzean hasi nahi dituzte lanak. Gasteizko norabidea gaur egun dagoen bidetik izango da hainbat moldaketa eginda. Donostiarako norabidean bide berria egingo du Diputazioak. Bi norabide-
etan bide bikoizta izango da. Etxegarate bikoizteko falta den zati honek 8.500 metro ditu.

Gehienezko malda %6koa izango da. Bi tunel izango dira: bata 180 metrokoa eta bestea 250koa, azken hau menda-
tearen goiko aldean. Lanak egiteko 9.486 pezeta bideratu ditu Diputazioak, hasieran aurrikusi baino 200 milioi gehiago. 2002. urterako lanak amaituta egotea aurrikusten da, Nafarroari dagokion bikoizketaren azken fasea bezalaxe.

Eugenio Irastorza

Gose greban dago urtarila-
ren 12az geroztik Almeriako kartzelan dagoen Eugenio Irastorza preso ordiziarra. Kartzela barruko sakabana-
keta salatzeke ari dira egiten gose greba. Bere sendiarte-
koei ukatu egin zien aurrez aurreko bisita Almeriaraino joan ondoren, gose greba egiten ari den bitartean iso-
laturik dagoela argudiatuz. Presoekiko elkartasuna adierazteko Ordizian, urta-
rrilaren 24an, manifestazioa egin zen.

Juan Mari Sagarzazu

Juan Mari Sagarzazu itsa-
sondoar gaztea torturatzeaz akusatutako Polizia Nazio-
naleko poliziek deklaratu dute Donostiako epaitegian. Guztiek ere ukatu egin di-
tuzte akusazio guztiak.

Ekaitz eta Irati Goikoetxea

Laugarren Kima bertso-
paper lehiaketa Ekaitz Goi-
koetxea beasaindarrentzat izan da; 'Urbia, naturaren klito-
ria' izeneko bertso sortare-
kin.

Leioan, berriz, Irati Goi-
koetxea gailendu zen gazte mailan, eta 18 urte gorakoen artean Moises Enbeita lehe-
na eta Ekaitz Goikoetxea bi-
garren.

IKarlos Argiñano

Beasaindar sukaldaria berriz itzuliko da sukaldaritzako saioarekin Tele 5 telebistara. Ardoari buruzko atala izan-

GESTORIA BIOK

ASEGURUOK

- ✱ Aholkularitza laborala eta fiskala
- ✱ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 943 88 44 00 - 943 88 12 58

Goierrri, 12

ORDIZIA

ZALBIDE SAGARDOTEGIA

Arraiak parrilan

☎ 943 65 21 76

ABALTZISKETA



GOIERRITARRA



943 88 96 12

Lanordu bat euskarak iraun dezan

Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak, datozen egunotan, otsailaren erdialdera arte, lanordu bati dagokion soldataren zatia eskatuko die 6 langileetik gora dituzten enpresetako langileei. Euskararen normalkuntzarako prestatzen ari den Plan Estrategikoa finkatzeko erabiliko da dirua. Era honetan, euskararen egoera aztertuko du Kontseiluak lurraldez lurralde eta sektorez sektore eta ondoren, neurri normalizatzailerak proposatuko ditu.

Sindikatuak bidez bideratu dute egitasmoa eta urtarileko nominarekin batera banatu zaien atxikimendu-orriak bete dituztenek, enpresak zuzenean, lanorduari dagokion soldatazatiaren kenketa egingo dute. Enpresariei ere eskatu die konpromezua: lantegi bakoitzeko langileek emandako diru kopuruaren adina enpresak berak ematea.

"Ekimen honen bitartez herritar orok euskararen etorkizunerako duen erantzukizuna azpimarratu nahi dugu eta hortik, hain zuzen ere, diru kopuru sinboliko hau eskatzearen arrazoia. Gutariko bakoitzak bere esparruan egin behar du euskararen aldeko ahalegina, sinbolikoa bada ere", argitu du Kontseiluak.

'Bai Euskarari: XXI. mendeko akordioa'-rekin 22 eragile sozialek bat egin dute. Borondatezko konpromezu hauek gizarte osora zabalduko direla uste du Kontseiluak.



300.000 pezetako bidaiak badu jabea

GOIERRITARRA aldizkariaren zozketako sariak jabea baino gehiago, jabeak dituela esan behar da. Unai Salaberria beasaindarrak saldutako takoan zegoen 3.486 zorteko zenbakia. Bernedo udalekuko 3. txandako begirale eta sukaldariek egin zuten afarian, 24 lagunek, tako oso-oso erosi zuten. Orain, guztiek elkarrekin, joan nahi dute ahal duten lekura. Iazkoa bezala, Vietnamera ezingo dira joan, baina ziur gaude joaten diren lekuan primeran pasatuko dutela. Zorionak guztioi!

Argazkia saria ematerakoan ateratakoa da. Ezkerretik eskubira, Aitor Asurmendi Goierritarrak Kultur Elkarteko lehendakaria, Eli Aranburu eta Ainhoa Galparsoro saridunak, eta Beasaingo Urola Bidaiak-eko ordezkaria.

go du saio berriak. Eguerdiko ordu bietan pantailaratu-ko da, 'Karlos Argiñano con mucho gusto' izenburupean.

Iker Sukia

Ataundar pisu jaurtitzaileak Euskadiko errekor berria jarri du: 18,49 metro.

Euskadiko sokatira txapelketa Idiazabal

Idiazabalgo San Blas festen barruan, Euskadiko goma gainetako sokatira txapelketa jokatu da Igarondo pilotalekuan, otsailaren 6an,

arratsaldeko 6etan. 640 kilotakoen lehiak jokatu dute Hego Euskal Herriko 14 taldek hartuko dute parte: Areso (Nafarroa), Urrestilla (Gipuzkoa), Txantrea (Nafarroa), Orozko (Bizkaia), Imotz (Nafarroa), Euskal

Kirol Zaleak (Bizkaia), Gaztedi (Bizkaia), Beti Gazte (Nafarroa), Abadiño (Bizkaia), Altamira Gaztea (Bizkaia), Orendain (Gipuzkoa), Goiherri (Bizkaia), Bizindar (Araba) eta Arrizkuzubi (Araba).

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/95

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

AURRE ZITA

☎ 943 88 72 21

☎ 910 02 00 41

Oriamendi, 3 - 2. ezk.
BEASAIN

OSKARBI OINETAKOAK



Mota guztietako eta adin guztientzako oinetakoak.

Kickers

K. Nagusia, 25

☎ 88 19 44

ORDIZIA

URBITARTE sagardotegia



- Txotxetik irekita
- Eguerdi eta gauetan irekita
- Eguerdietan hobe aurrez deitzea

Erreserba telefonoa:

943 18 01 19

Ergoiena Auzoa

ATAUN

KARMEN LEGORBURU HERRITARRA ARGENTINAN BIZI DA DUELA 60 URTETIK

Ameriketara joan nintzan....

Mende hasieran, bizimodu hobearen bila Idiazabaldik Ameriketara joandakoetako bat da Karmen Legorburu Antia. "Gauzak nahastuta zeudelako" joan ziren Karmen eta bere familia berak 17 urte zituela. Geroztik, sarritan etorri da Karmen Idiazabala, azkena aurreko udan.

Lehendabizi Tucumanen, eta ondoren Buenos Airesen, Karmen Legorburuk sorterritik urrun egin ditu bere bizitzako urterik gehienak. Gaztetan joan zen familia guztiarekin Argentinara. Bertan bere familia sortu zuen eta laister jakin zuen zaila izango zela berriro ere Euskal Herrira itzultzeara, "nekez etorriko nintzen, izan ere bertan ezkondu egin nintzen eta familia ere han nuen. Hala ere sarri etorri naiz azken urte hauetan, nire senarra espainola



Karmen Legorburu.

baitzen eta hark ere bere herria maite zuen eta ia urtero etortzen ginen bisitan".

Bisitaldi horiei eta familiakoekin izandako harreman estuari esker, azentuan Argentinako ikutua duen euskara zuzena eta garbia egiten du oraindik Karmenek. "Duela hilabete batzuk hil zen arte, ahizpa izan dut betidanik nirekin bizitzen eta harekin egun guztian euskaraz egiten nuen". Idiazabalgo "euskerea" da hala ere Karmenek ondoen menperatzen duena, "oraingo euskararen erreforma horrek lanak eman

dizkit ulertzerakoan, igandetan mezatara joanda sermoiaren erdia airean joaten zait".

Hizkuntza ez da ordea urte hauetan guztietan aldatu den bakarra. Idiazabal asko aldatu da Karmenen esanetan, orain "polita, txukuna eta garbia" ikusten du bere jaioterria. Familiakoak eta ezagunak bai, baina gaztetako lagunak ez du aurkitu herrira egin duen azkeneko bixitan "lagunak hil egin dira, izan ere nik ere badauzkat nire urteak".

Denborari bizkarra



Karmen eta Santiago aurreko udan.

Urteari hasera ona emateko, Goierriko aurreneko jaiak, Sanblasak ospatzera gaonbidatzen zaituztegu goierritar guztiok.



**IDIAZABALGO
UDALA**

Argentinako Idiazabal

Karmenen familiak bezala, Unsaindarrak, Jauregiartzotarrak, Altolagirretarrak.. eta sendi gehiagok hartu zuen Idiazabaldik Argentinarako bidea. Horien lekuko da besteak beste, gaur egun Argentinan dagoen Idiazabal herria.

Jose Luis Aranburu eta Mari Karmen Iraola idiazabaldarrak izan dira duela gutxi Argentinako Idiazabalen. Herriar hauen esanetan Demetrio Jauregiartzori esker du izen hori Argentinako herriak. Antza denez, Demetrio Jauregiartzo Argentinako herri horretara bizitzera joan zenean trenbidea egiten ari ziren eta bertan geltokia jartzeko eskatu zuen. Horretarako bere terrenoak utzi zituen eta trukean herriari Idiazabal izena jarri zioten.

Argentinako Idiazabalek bi mila biztanle inguru ditu. Horretaz gain ez du parekotasun gehiago, Argentinako Idiazabal etxe txikiz osatuta dago eta inguruan ez du mendirik. Jose Luisek eta Mari Karmenek Ar-



Jose Luis Aranburu eta Mari Karmen Iraola Argentinako Idiazabalen.

gentinan barrena egindako bidaian hemen jaio edo gurasoak hemengoak dituzten Jauregiartzo eta Unsain familietako kideekin egoteko aukera izan zuten. Argentinan Ana Mari eta Karmen Unsainekin hasitako hartuemanari eskutitzez eusten diote. Argentinatik bertatik bi ahizpa hauek, bere aita, Angel de Unsain, hemengo Idiazabalgo alkate zela egin ziren eskolen inaugurazio ekitaldiko argazkia eta informazioa helarazi dizkiete (aurreragoko ale batean azalduko dugu).

emanda, utzitako lekuan jarraitzen duenik ere bada, Karmenen familiak kale Nagusian duen etxeak bere hartan jarraitzen baitu, "etxe hori asko maite dut, eta bertan oso gustora ego-

ten gara". Santiago, Karmenen biloba bizi da orain familiaren etxean. Amonak egin zuen bidaiaren kontrakoa egin du Santiagok eta Idiazabalen bizi da iazko maiatzetik. Etxe horrek,

ezinbestean, Argentinara joan aurreko urteak ekartzen dizkio gogora Karmeni. Gogoan du herrian bertan ikasitakoaren azterketak egitera Donostiara joaten zenekoa "bertara joan be-

harra izaten nuen Batxillerreko esamiñak egiteko".

Euskal Etxea

Uda Idiazabalen pasatuta, azaroan itzuli zen berriro ere Karmen Argentinara. Idiazabal, euskara eta Euskal Herria ez dauzka ordea ahazteko eta han ere ahaleginak egiten ditu Euskal Etxetako jendearekin harremanik ez galtzeko. "Ahal dudan guztietan joaten naiz zentru horietara. Giro euskalduna dago bertan, euskara ordea galduta dago, oso gutxi egiten da. Izan ere nekeza da denek erderaz hitz egiten duten lekuk baten euskera gorde-tzea".

Buenos Airesen, Idiazabalekin duen harremanari eusten ere saiatzen da. Orain familiakoak, aurrekoak eta ondorengoak, ditu Idiazabalen. Urrutikoetxeakoa zuen aita, eta Oriko errotakoa ama, bertako familiartekoeekin "urrutizkinez" hitz egiten du. Bere biloba Santiagok ere hemengo kontuak sarritan kontatzen dizkio.

Xabier Urteaga
Aloña Galarraga



MUJIKA

jatetxea

Kogote erreak,
txuletak

Nagusia, 42 ☎ 943 18 73 19
IDIAZABAL

ALAI
Jatetxea



Jai
zoriontsuak!

Etxegarate gaina
☎ 943 18 76 55
IDIAZABAL



Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

☎ 943 18 71 93
IDIAZABAL

San Blas jaia Idiazabalen

Urtarrilak 31, igandea:

11:00etan: XIX. Herri Kro-
sa.

17:00etan: Umeen danbo-
rrada.

Ondoren: Haur berbena
plazan.

Otsailak 2, asteartea: Kandelaria eguna:

19:30ean: Meza eta Kande-
la Bedeinkazioa.

20:00etan: Ohiko Kanpai
Buelakoak eta Txistula-
rien kalejira. Txupinazoa
eta buruhandiak.

20:30ean: Axariaren jai-
tsiera. Ondoren jaietako
pregoia irakurriko da Uda-
letxe bakoitiko.

23:00etatik 03:00etara:
Joseba Iparragirrenen triki-
ti taldeak alaitutako gaua.



Arg.: Fototxe

Otsailak 3, asteazkena: San Blas eguna: Koadrilen eguna:

10:00etan: Txistularien ka-
lejira.

11:00etan: Meza Nagusia,
Parrokiko Koruak abestu-
ta. Ondoren Hamaiketa-
koa Apaiz etxean.

12:00etan: Patatak Errioxar
erara prestatzen hasiko di-
ra plazan.

13:00etan: 'Navarra Canta'
taldeko joteroen kantaldia.

Eguerdian partean: 'Poteo
Dotorea' egingo da herri-
ko tabernetan zehar.

14:00etan: Aurrez prestatu-
tako Errioxar erako pata-
tak jango dira, 'Navarra
Canta' taldeak lagunduta.

16:30ean: 'Sumo' ikuski-
zuna plazan; bertan parte
hartzeko aukera izango da.

19:00etan: Tirri Tarra Fan-
farrearen dantza eta kantu
ikuskizuna Igarondo pilo-
talekuan.

20:00etatik 03:00etara:
Kiñu musika taldearekin
dantzaldia.

Otsailak 4, osteguna: San Blas Txiki eguna:

10:00etan: Txistularien ka-
lejira.

11:30ean: Ohiko Hamaike-
takoa plazan.

Eguerdian: Andoni Egaña,
Sebastian Lizaso eta An-
gel Mari Peñagarikano
bertsularien saioa. Arra-
tsaldez Mujika jatetxean
jarraituko dute kantuan.

19:30ean: Tximeletak txar-
rangaren saioa.

23:30etik 03:30era: Etza-
kit taldeak alaituta dan-
tzaldia.

IRIONDO ELEKTRAGAILUAK

Herritarro festa onak opa dizkizuegu

Nagusia, 5 ☎ 943 18 71 65
IDIAZABAL

BATZOKI TABERNA

Kalamaretan espezialdua

Nagusia, 24 ☎ 943 18 71 25
IDIAZABAL

ARANTXA LENTZERIA- MERTZERIA

*UMEEN ERROPAK
Jai zoriontsuak denoi!*

☎ 943 18 75 06
Bikuña Kalea, 1 IDIAZABAL



frutak - barazkiak

☎ 943 18 72 20 (biltegia) Plaza Nagusia, 6
☎ 943 18 75 70 (etxea) IDIAZABAL

XUME TABERNAk

Festa onak opa dizkizue

Nagusia, 5 IDIAZABAL ☎ 943 18 70 35



BUENOS AIRES JATETXEA-k

jai zoriontsuak opa dizkizue!

ETXEGARATE GAINA
☎ 943 18 70 82
IDIAZABAL



Arg.: Fototxe

Otsailak 5, ostirala: Umeen eguna:

11:00etatik 17:00etara:

Umeentzako parkea eta jo-koak Zelaako kiroldegian.

17:30ean: Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoek 'Baserrian' ikuskizuna eskainiko dute.

18:30ean: Idiazabalgo Bigarren Mahai Tennis txapelketa, Zelaako kiroldegian.

19:30ean: Laguntasuna Errondailaren saioa.

20:00etan: Buruhandiak.

22:30ean: Eskuzko Pilota Partidu Profesionalak Igarondo pilotalekuan, Construcciones Mariezkurrenak lagunduta.

24:00etan: Danborrada.

Ondoren eta goizalderarte: Joselu Anaiak taldea.

Otsailak 6, larunbata:

10:00etatik eguerdirarte: Plater Hausketako entrenamendu saioa Goardi aldean.

15:00etan: Tiroa, plater Hausketa Goardi aldean, herritarren artean.

16:30ean: Indoor erako Trialala Futbitoko pistan, Construcciones Mariezkurrenak lagunduta.

18:00etan: Sokatira goma gainean Igarondo pilotalekuan; Euskadiko Txapel-

ketako kanporaketa. Parte hartuko duten taldeak (640 kg.): Areso, Urrestilla, Txantrea, Orozko, Imotz, Euskal Kirol Zaleak, Gaztedi, Beti Gazte, Abadiño, Altamira Gaztea, Orendain, Goiherri, Bizindar eta Arrizkuzubi.

20:00etan: Txistulari Kontzertua Txomenarenako parkean.

23:30etik 03:30era: Arkaitz taldeak alaituta dantzaldia.

04:00etan: Txokolate jana plazan.

Otsailak 7, igandea: Ezkonduen eguna:

9:00etatik eguerdirarte: Probintzi arteko Bolo txapelketa.

10:00etan: XIII. Xake txapelketa Kultur Etxean.

10:00etan: Txistularien kalejira.

13:00etan: Beti Argi bandaren kontzertua plazan.

18:30ean: Neska arteko Futbito Txapelketa Haundia.

18:30ean: Talo eta sagardo dastaketa plazan, Construcciones Mariezkurrenak lagunduta.

20:00etan: Buruhandiak.

19:30etik 02:30era: Joselu Anaiak taldeak alaituta dantzaldia.

24:00etan: Axariari agurra, datorren urterarte.

Oharrak: Kultur Etxean hiru erakusketa egongo dira: batetik, urtean zehar herritarrek ikastaroetan egindako eskulanak; bestetik futbol zelaiko proiektua; eta azkenik, Mujika jatetxea eta Pilarrenea arteko terrenoaren urbanizazio proiektua.

PERIKO
ARRANDEGIA

Kale Nagusia, 16
☎ 943 18 71 13
IDIAZABAL

IZPAR

*Eskolako gaiak,
goxokiak, prentsa.*

Jai zoriontsuak!

☎ 943 18 72 19 IDIAZABAL

ODEI
T a b e r n a

Jai zoriontsuak denoi!

Nagusia, 29 ☎ 843 18 75 15
IDIAZABAL

AXARI
jantzi denda

Jai zoriontsuak denoi

☎ 943 18 72 84

Nagusia, 15
IDIAZABAL

KONTXI HARATEGIA
MIKEL JANARIDENDA

Festa onak pasa!

Nagusia, 14 ☎ 943 18 70 78 IDIAZABAL



ANTIKO
GARAJEA

MEKANIKA ETA IBILGAILU KONPONKETA

Guardiko Industrialdea ☎ 943 18 74 83

IDIAZABAL

Abel Goiburu idiazabalدارra Mexikon sukaldari

Idiazabalgo Abel Goiburu gaztea Mexiko hiriburuan sukaldari lanean aritu da ia bi urtean. Donostian, Irizar sukaldariaren eskolan ikasi eta berehala izan zuen atzerrira joateko aukera Abelek. Hasieran Kanadara joatekoa zen, baina bisaaekin arazoak izan zituen eta astebate falta zela esan zioten Mexikora joango zela. Hernaniko Jon Arrospiderekin batera joan zen.

Lehenengo 6 hilabeteak Mexikoko Euskal Etxeko jatetxean aritu ziren. Gero beste jatetxe batean. Euskal sukaldaritzan prestatu dute bertan, sukaldaritzan tradizionala. Oso gustokoa omen du mexikarrek Euskal Herriko jana. Hori bai, pikante piska bat gehituta. "Mexikarrek pikantearekin jaten dute guztia. Orduan, guk pikantea, aparte zerbitzatzen genuen, mexikarrek nahi adina har zezaten".

Euskal sukaldaritzan egiteko lehengaiak lortzeko oso gaizki ibiltzen ziren, baina bi sukaldaritzan motak ondo



Ezkerrean dagoen Abelek 23 urte ditu eta Mexikoko jana ikaragarri gustatzen zaio. Pikantearen afizioa egin eta eskubiko Jonekin apustuak egiten zituen nork pikante gehiago jan. Erdikoa, Abelen Idiazabalgo laguna da, Erik.

uztatu dituzte. "Bukaeran legatza lortzen genuen. 'Sukalde' elkarteak sortu zen eta Txiletik ekartzen zuten. Haragia oso ona dago Mexikon baina arraina lortzea zaila da. Hemengo txitxarroa egiteko, hango arrain batekin egiten genuen. Hango produktuetara moldatu genuen hemengo jana. Hasieran lana izan genuen moldatze-ko", dio Abel Goiburuk. Beste arazo bat ere izan zuten. "Mexiko 2.000 metrora dago eta altueragatik, janak denbora gehiago behar du egiteko. Hemen arroza 15 minutuan egiten bada, han orduerdi baino gehiago behar du. Hasieran arroz gogor-gogorra ateratzen genuen. Labeak tenperatura hartzeko ere denbora gehiago behar du", argitu digu.

Euskaldun jatorriko asko bizi da Mexikon, aiton-amona euskaldunak dituztenak asko dira. Hala ere, euskaldun jatorrikoak ez omen dira oso ondo konpontzen elkarrekin, politika dela tarte-ko.

Bezere onak

Bezere onenak mexikarrek beraiek dira Abelen esanetan. "Jende asko ibiltzen da jatetxeetan. Mexikon jende asko dago diruduna, nahiz eta gehiengoak bestelakoa izan. Aberats horiek etxean ez dute jaten, beti jatetxeetara joaten dira eta diru asko uzten dute".

Sukaldariak oso ondo bizi omen dira. "Oso ondo irabazten dute han sukaldariak. Askok 400.000 pezeta

irabazten dituzten hilean eta Mexikoko hori diru izugarria da". Dena den, sukaldarien artean "erdi mafia" dago. "Lehenengotan hango sukaldariekin ibiltzen ginen, baina klan bat bezala zen. Kotxe ikaragarriak, taberna dotoreak... Gu atera egin ginen sistema horretatik eta ez zitzaie ondo iruditu", zehaztu du idiazabaldarrak.

Kanpoan estimazio gehiago

Sukaldari gazte asko joaten da atzerrira. Mexikon bertan asko omen daude. "Kanpoan estimazio gehiago dauka. Atzerrian dextente gehiago estimatzen dira euskal sukaldariak. Hemengo jate-teeetan lan eginez gero, segurorik gabe aritu behar izaten da, ordu asko eta diru oso gutxi irabaziz. Hemen sukaldariak asko esplotatzen dira". Egoera ikusita, berriz ere kanpora joateko asmotan dabil Abel. Gainera, "sukaldari sartu nintze-nean, hasieran nire ideietariko bat zen, lekuak ezagutzea bertan lan eginez, eta jubilaziorako hemen zerbaiz txikia jartzea izango litzateke nire ametsa".



ZEPAI
JATETXEA

☎ 943 18 71 98
IDIAZABAL

FRONTOIKO
EDARITEGIA

Festa onak pasa!

☎ Mateo Mujika Kalea
☎ 943 18 70 74 **IDIAZABAL**



Etorri zaigu berriro ere
Idiazabala San Blasa
Kimuren izenean
denok ondo pasa

IONEK A

OINETAKOAK
KIROL JANTZIAK

Bikuña, 1 ☎ 943 18 75 27
IDIAZABAL



KLIK
estankoa

festa zoriontsuak
opa dizkizue

Nagusia, 20 **IDIAZABAL**

IDIAZABAL

Astebeteko Sanblasak

Igande honetan, urtarrilak 31, hasiko dira Sanblaseta-ko ekitaldiak eta otsailaren 7an bukatuko dira aurtengo jaiak. Zazpi egun hauetara-ko antolatutako ekitaldi batzuk berriak dira, beste batzuk berrituta datoz.

● Sumo ikuskizuna

Aurten estrainekoz Sumo ikuskizuna antolatu da. Herriko plazan eszenario txiki bat jarriko dute horretarako. Herriar guztiek izango dute Sumoa zer den frogatzeko aukera (otsailak 3, 16:30-etan).



● Profesionalen pilota partiduak

Eugi eta Santi, Olaizola eta Elkororen aurka arituko di-

ra. Udalak eta Aspek sinatutako akordioari dagokion lehen partidua izango da hori. Sarrerak salgai daude herriko tabernetan (otsailak 5, 22:30etan).

● Helduen danborrada

Talde berri bat izango du aurtengo danborradak. Jubilatuen elkarteko kideek antolatutakoa hain zuzen ere (otsailak 5, 00:00etan).

● Indoor erako trialak

Iazko emanaldiak izandako arrakastaren ondotik aurten kirol honen beste modalitate bat ikusteko aukera izango da. Futbitoko pistan izango da aurtengo froga (otsailak 6, 16:30etan).

● Sokatira goma gainean

Euskadiko txapelketako kanporaketa jokatu da. Hego Euskal Herriko 14 herrietako taldeak arituko dira lehian Igarondo pilotalekuan. Herrian bizi den Mikel Garmendiak Orendaingo taldearekin parte hartuko du (otsailak 6, 18:00etan).

● Txistulari kontzertua

Herriko txistulari taldeak antolatuta, Goierrialdeko txistulariek alardea eskainiko dute Txomenarenako parkean. Herriko abesbatzak eta dantzariak ere parte hartuko dute (otsailak 6, 20:00etan).

● Mariezkurrena eraikuntzak

'Construcciones Mariezku-

rrenak lagunduta', esaldi hori agertzen da egitarauko hainbat ekintzetan. Mariezkurrena, barianteko bikoizketa egiten ari den enpresa da, Udalak jakinarazi duenez enpresa honek herrian ekitaldiak antolatzeko diru kopuru bat eman du. Diru horrekin festetarako antolatu diren ekitaldiak dira beraz atzetik esaldi hori dararmatenak.

Xabier Urteaga



Lur sailen salmenta

Guardi Gain S.A. Udaletxeko elkarteak, Zigor auzoan urbanizatutako lur sailak salgai jartzeko asmoa du. Horieta-koren bat erosteko interesa dutenentzat bilera antolatu da. Otsailaren 12an, asteartea, arratsaldeko 7etan egingo da Udaletxean.

JERONIMO-ENEA

**Taberna
eta
gasolina surtidorea**

☎ 943 18 74 96
IDIAZABAL

JOSE LUIS arrandegia

☎ 943 80 03 25 - 943 18 76 99
Santa Barbara, 2 ZEGAMA

ARANTZAZU arrandegia

☎ 943 18 70 68 - 943 18 76 99
K. Nagusia, 20 IDIAZABAL

MUJIKA HARATEGIA

Odolki eta txorizoetan berezitasuna

Kale nagusia, 2

☎ 943 18 71 82

IDIAZABAL

BEASAIN

Idazle gazteentzat sariak otsailaren 7an



Iazko irabazleak 5. eta 6. mailakoen atalean.

Otsailaren 7an, eguerdiko 12etan, Udaletxeko Batzar Aretoan egingo da IX. Beasain idazlehiaketako sari-ematea. 5 mailatan banatu da lehiaketa eta eskualdeko ikastetxeetako 1980tik 1990era bitartean jaiotako ikasleek hartu dute parte. Ikastetxeetan mila bat idazlan idatzi ondoren, ikastetxean bertan aukeraketa egin eta 175 izan dira Udaletxera iritsiak eta horietatik 41 maila desberdinetan sariatuak.

Epaimahaia osatu dutenak hauek izan dira: Xabier Mendiguren Elizegi, Mikel Sarriegi Etxezarreta, Idurre Eskisabel Larrañaga, Gabino Murua Zumalakarregi, Jexux Aizpurua Barandiaran eta Begoña Iartza Urkiola. Sariatuak asko izan dira, 41, eta lehenengo saria jaso dutenak bakarrik aipatuko ditugu:

A mailan, 1980-82. urte bitartean jaiotako artean, olerkien atalean, Txindoki-Alkartasuna Institutuko Ainara Gorostizu Mujikarentzat izan da lehenengo saria, 'Musuak??' lanarekin. 30.000 pezeta eta oroigarria jasoko ditu. Hitz lauaren atalean, Txindoki-Alkartasuna Institutuko Maddi Gar-

mendia Irizarren 'Desio garratzak' lanari eman diote lehenengo saria. 35.000 pezeta eta oroigarria izango dira berarentzat.

B mailan, 1983 eta 1984. urteetan jaiotako artean, Ordiziako Jakintza Ikastolako Ederne Amondarain Aierberentzat izan da lehenengo saria, 'Tamarindoen poeta' lanagatik. Oroigarria eta 30.000 pezeta jasoko ditu.

D mailan, 1985 eta 1986. urteetan jaiotako artean, Beasaingo Ikastolako Aritz Cor-sitto Agirre izan da irabazlea, 'Cherokeearren bison-te-ehizaldia' lanarekin. 25.000 pezeta eta oroigarria jasoko ditu.

E mailan, 1987 eta 1988. urteetan jaiotako artean, Alkartasuna Lizeoko Nerea Garcia Elosegiri emango diote lehenengo saria, 'Ainhoaren gelako tresnak' lanagatik. 20.000 pezeta eta oroigarria izango dira berarentzat.

F mailan azkenik, La Salle-San Jose Ikastetxeko Sofia Milla Herranzentzat izango da lehen saria, 'Miren eta bere txoria' lanarengatik. 15.000 pezeta eta oroigarria jasoko ditu.

Aterpe Tabernak 10 urte

Oria pasealekuan dagoen Aterpe Tabernak duela 10 urte hartu zuen pinturarekiko konpromezua. Urteurren hau ospatzeko Aterpe Pintura lehiaketen irabazle guztien lanak izango dira ikusgai: Olga Madina, Mamen Garcia, Loinaz Olano, Santi Iruretagoiena, Angelica Villalba eta Edurne Maritzalarranak. Otsailaren 19ra arte egongo da erakusketa ikusgai.

Asmuberen ikastaroak

Asmube, emakume elkarteak, otsailaren 2tik aurrera 3 ikastaro berri jarriko ditu martxan: **Auto mekanika:** Zelata Garajearen emango da ikastaroa. 20 ordukoa izango da, asteazketik ostiralera, arratsaldeko 6etatik 8etara, eta 4.000 pezeta kostatuko da. **Hari bidezko lanak:** 'Bolliloak', 'Fruvoliteak', 'gakorratza', 'vainica' eta 'handanger' lanak nola egiten diren erakutsiko da. Asteartean izango da, arratsaldeko 4etatik 6etara. 34 orduko ikastaroa izango da eta 5.000 pezeta ordaindu beharko dira. **Gurutz puntu** ikastaroa ere izango da. Kale Nagusiko 40. zenbakiko Asmuberen bulegoan eman behar da ikastaro hauetarako izena.

III. Gizarte Ongizate Jardunaldiak

Udaletxeko Gizarte Ongizate sailak antolatutako, 3. urtez jarraian, urtarrilaren 29an, 'Gizarte bazterkeriaren aurkako borroka. GGD eta GLL laguntzak al dira erantzuna?' gaiari buruzko jardunaldia izango da Udaletxeko Batzar Aretoan. Gizarte Ongizate arloan egunero lan egiten duten teknikari, politikari eta gaiarekin nolabaiteko lotura duten gizarte-agenteen artean hausnarketa egitea da helburuetariko bat. "Laster beteko dira 10 urte gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrerara (GGD) eta gizarteratzeko larrialdietarako laguntzak (GLL) ipini zirela; laguntza hauekin lortutako emaitzez jabetuak gara eta halaber ekimen berrien bultzada eta bide berriak irekitzeko beharra dagoenez ere, hauek guztiak denok nahi dugun gizarteratzeko helburu hori lortzeko zirikatzaila eta bultzatzaile izan daitezten. Helburu hori lortzen aurreratu ditugun zailtasunak elkarrekin aztertu nahi ditugu eta era berean bidezkoak diren aurkibideak ezagutzera iritsi nahi dugu", adierazi dute Ongizate Sailekoek..

San Martin eguna

Otsailaren 5ean, Loinazko San Martin egunean, Odolkariaren kofradiak bere urteroko festa izango du. Aurten ere 4 kofradikide berri izendatuko dituzte. Josu Ortuondo Bilboko alkatea, Tolosako Babarrunaren Kofradia, Juan Gomez Realeko jokalaria eta Jose M. Palacios 'Ogeta' pelotari ohia.

Abesbatzen kontzertuak

Loinazko San Martin egunaren inguruan antolatutako ekitaldietan goi mailako bi abesbatzen emanaldiak izango dira. Donostiako Kamara abesbatzaren emanaldia, otsailaren 5ean, 20:00etan, San Martin basilizian. Hurrengo egunean, ordu berean, Andre Mari Zeruratuaren parrokiaren Easo abesbatzaren Kapera Gregorianoaren emanaldia izango da. Aita Xabier Irastortza izango da zuzendaria.

ATAUN

Eate abesbatza berriro gure artean



Bizpahiru hilabeteetako geldialdiaren ondoren eta konpromezua berriturik, berriro abian da Eate abesbatza. Albiste pozgarri honen harira kontutan aritu gara Maximo Aierbe, taldearen zuzendariarekin.

Hastapenei dagokienean "Eguberrietako kantuen inguruan" hasi zirela dio Maximok. Entseiuetara 16-18 lagun bildu zirela ikusirik, "lau ahotsetara abesteko proposamena egin nien. Aitzakia horretatik abiatuz sortu zen abesbatza". Herri mailan zerbait antolatzeak aukera ikusiz eta abesbatza izateak "kulturalki suposatzen duen aberasgarritasuna" kontutan izanik, lanari ekion zioten Dionisio Etxeberría eta Maximo

Aierbek.

Ordutik, jende kopuruari dagokionean gora-behera handiak izan badira ere, egun 20 lagunek osatzen dute Eate.

Etorkizunari begira baikor ageri da Maximo. Bi helburu azpimarratu ditu, "orain arte herri mailan, hau da, hiru auzoetan eta Jentilen Etorreran genituen konpromezuak betetzea" eta "teknikoki prestatzea", honen kantoko 3. maila egiten ari den Ainhoa Esnaolaren laguntza izango dutelarik. Gainera, Ataungo Udala bekaren laguntzaz Maximok egin duen kantu bildumarekin konpakto bat argitaratzeko asmoa omen da eta "Eatek horretan zeresan han-



Lehen postuan

Lehen postuan doaz areto futboleko Ataun Generali taldea eta neska jubenilak. Bikaina benetan egiten ari diren denboraldia. Aurera eta animo guztioi!

dia" izan behar lukeela dio Maximok.

"Kantuzaleetasun eta konpromezu serio batekin datorren edonor ongiatorria izano da Eate", baina batik bat tenoreei luzatzen die deialdia. Beraz, anima zaitzte!

Santaeskerako deialdia

Otsailak 4: San Martin eta San Gregorion: 18:30ean. Hergonen: 19:00etan.

Otsailak 5: San Martin eta San Gregorion: 18:30ean.

Aian: 18:30ean.

4.000.000 pezeta!

Horixe da eskean eta akzionistek borondatezko dirua emanaz Ataunen 'Egingo dugu' kanpainan bildu den diru kopurua.

Kronista berria

Hemendik aurrera, nik neronek, Agurtzane Bikuñak, egingo dut Ataungo kronika GOIERRITARRA aldizkarian. Harremanetarako telefonoa: 943-180074.

Agurtzane Bikuña

ZUHAIZKI

S. A. L.

ZURGINDEGIA



× LEIHOAK, ATEAK eta abar

× ESKAILERAK NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55




GENERALI Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
943 88 87 02
BEASAIN

Autowag, s.a.



Golf berria!

943 88 82 54 / 62 / 66
N-1 errepidea, 419 Km
BEASAIN

ORDIZIA

Kirol eta kultur erakundeei diru-laguntzak

Orotara 5 milioitik gorako dirulaguntzak jasoko dituzte aurten herriko kirol eta kultur elkarteek. Sekula hainbeste diru eman gabe zegoen Udala honi dagokionez eta esan iazkoarekin alderatuz milioi bat pezeta gehiago erabili duela. Aurten, elkarte guztiek behar bezala eta behar zen denboraz aurkeztu zituzten eskaerak eta ondorioz ez da iazko istilurik sortu. Honela banatu dira 5 milioi horiek: Ordizia Rugby Elkartea, OKE Saskibaloia eta Txindoki atletismo taldeak 325.000 pta.na jasoko dituzte, Santa Ana Abesbatza, Oroith Abesbatza eta Ordizia Txirrindulari Eskolak 300.000 pta.na, Ordizia Futbol Taldea, Balakataklin Aisialdea eta OKE Igeriketak 275.000 pta.na, Ordizia Antzerki Taldeak 200.000 pta. jasoko ditu, Laguntasuna Errondaila, Ordiziako Mendizaleak eta Ordizia Eskubaloia Taldeak 175.000 pta.na, Jai Alai Pilota Elkartea eta Oiangui Pilota Elkartea 160.000 pta.na, Ortzadar Argazki Elkartea eta Arku-tiro Taldeak 150.000 pta.na, Gazte Asanbladak 135.000 pta., Jakintza Dantza Taldeak 130.000 pta., Kimetzek 125.000 pta., Ordizia Emakumezko Futbol Taldea, Barrenako Pintura Tailerra, Urdaneta Dantza Taldea eta Ordizia KE Urpekoak-ek 100.000 pta.na, OKE Zikloturistak 75.000 pta. eta azkenik, Pauso Gaizto eta Azarik 50.000 pta. jasoko dituzte bakoitzak. Guztira esan bezala 5 milioi pezeta pasatxo.

Mus txapelketa azkarra

Argi Berri Elkartea XXII. Mus Txapelketa azkarra prestatzen ari da jo eta su.



Presoak gogoan

Euskal presoak Euskal Herrian behar dutela adieraziaz konzentrazioa izan zen udaletxe aurrean joaneko Urte Zahar egunean. Aipatu alderdi politiko anitzetako jendea ikus zitekeela bertan. Plenuan ere, gehiengoaren iritziarekin, presoak gerturatzeko adierazten zuen idazkia onartu zen orain gutxi.

Bihar, berriz, urtarrilak 30, gogoeta edo erreflexio eguna izango da Senideak taldeak deituta, presoen gaian aurrera begira zer gehiago egin daitekeen aztertzeko. Barrenan izango da mahaingurua, goizeko 11etan.

Aurtengoa otsailaren 13an egiteko asmotan dabilta eta horretarako inguru guztietatik etorritako muslari guztien partehartzea ezinbestekoa izango da. Bikote irabazleak etxera pozik joateko motiboa izango du, 150.000 pta. eta txapelak prest egongo baitira. Galdetu bestela iazko irabazleak izan ziren Patxi Otegi eta Eugenio Estanga nafarrei, 4.000 pezeta bikoteko ordaindu ondoren, arratsalde osoan musean aritu ondoren poltsikoak beteta itzuli baitziren Intza aldera.

Bikote irabazlearentzat 150.000 pta. izango diren bitartean, bigarrenarentzat 75.000 pta., hirugarrenarentzat 40.000 pta., laugarrenarentzat 20.000 pta. eta bosgarrenarentzat 10.000 pta. egongo dira. Seigarren geratzen den bikoteak arkume ederra eramango du, zazpigarrenak bi opari-estutxe eder eta zortzigarrenak bi ardo estutxe. Herriko lehenen-

go bikotearentzat bi txuleta izango dira, Bustuntza auzoko lehen bikotearentzat urdaiazpikoa eta Argi Berriko bazkidez osatutako lehen bikotearentzat txanpaina. Arkume eta antxumeen ohiko zozketak ere hor izango dira.

Esan bezala mus txapelketa datorren otsailaren 13an izango da Argi Berri Elkartean arratsaldeko 4:15etatik aurrera eta antolatzaileek ohi den bezala ehun bikote inguru bilduko direlakoan daude. Aipatu partidak lau erregetara izango direla.

Final laurdenak

XIV. Areto Futbola Txapelketako lehen fasea amaitu berri da eta dagoeneko eza-gutzen dira finalaurdenak jokatu dituzten taldeak zeintzuk izango diren. 20 taldek eman zioten hasera iraila aldera txapelketari eta orain 8 bakarrik geratzen di-

ra. Neurketak honakoak izango dira: Alegiko Juan-txo Taberna Ordiziako Tximista Sagardotegiaren aurka arituko da. Aipatu bi talde hauek izan zirela iazko finala jokatu zutenak, txintxarriak nagusitu zirela. Oraingoan ere faborito dira Alegikoak, bere multzoko buru geratu baitira. Urbitarte Sagardotegiak Badago taldearen aurka jokatu du. Biak ere Ordiziako gazte koadrilak dira eta ez dago faborito nagusirik. Ordiziako Titin Tolosako Laier Taberna izango da beste norgehiagoketako bat eta azkenik Lazkaoko Alboka Taberna eta Tolosako Orbelak neurtuko dituzte indarrak. Partiduak larunbat goiz honetan izango dira eta irabazleek finalerdietarako txarrelak lortuko dituzte.

Txikitxaro

Hitzaro Euskara Elkartea antolatuta Txikitxaro mar-txan da berriro ere. Txikitxaro lehen eta bigarren mailako hurrei zuzendutako denbora libreko taldea da eta larunbat honetatik aurrera hor bilduko dira goizero jolasean aritzeko, euskara lagun dutela, noski. Jakintza Ikastolako eta Urdaneta Herri Eskolako 60 bat haurrez osatuta dago taldea.

Kaldereroen itzulera

Iaz berreskuratutako ohitura zaharrarekin jarraitu asmoz, kalderero edo galdaragileen bisita ere jasoko dugu aurtengoan ere. Ihauteri aurreko asteburua izango da hauek aukeratutako eguna, otsailaren 6a hain zuzen eta Garagartza Plazatik irtengo dira gaueko 10etan. Ohiko ibilbidea egingo dute.

Aitor Calvillo

ZEGAMA

Kultur etxea garai bateko ihauteriei buruzko informazioaren bila

1999ko ihauteriak badatozela eta, Kultur Etxeko Batzordean gai honi buruz zenbait gogoeta egin zen. Bertan, herrian garai batean ospatzen ziren ihauteriak gogoratu ziren eta interesgarritzat jo zen garai bateko ihauterietako argazkirik-edo herrian balego hauek lortu eta kopia bana ateratzea. Horrezaz gain, Zegamako ihauteriei buruz norbaitek informaziorik balu, eskertuko genuke honen berri ematea. Horretarako jar zaitezte 943 801351 telefonora deituz Edurnerekin harremanetan.

Ihauteri jaiak, otsailaren 12an

Aurten ere zenbait ospakizun prestatu da ihauterietarako. Arratsaldeko 2,30ak

aldera, Aitxuri Herri Eskolako haurrak herrian zehar ibiliko dira beraien moztiroak jantzita. Arratsaldeko 4etan herriko plazan txokolatea izango da haurrentzat eta ondoren buruhandi eta jokoak. Eguraldi txarra balego, buruhandi eta jokoak pilotalekuan izango dira. Gauean, afari moztortua eta dantza lehiaketa izango dira. Sariak: lehenengo bikotearentzat, urdaiazpiko bat eta bigarrenarentzat gazta bat. Kultur Etxeak afalondoren txokolate beroa eskainiko die bertaratuei.

Otsailak 4, Santa Ageda bezpera

Urtero bezala, aurten ere Santa Ageda bezperako irteera martxan dago. Iaz bezala herriko koplariak izan-

go ditugu. Irteera arratsaldeko 6,30etan izango da Zine ondotik, beraz anima zaitezte bertan parte hartzera. Aitxuri Herri Eskolako haurrek ere beren irteera arratsaldeko 2,30etan egingo dute.

Pandero ikastaroa

Tobera Musika Eskolak aurten ere pandero ikastaroa eskainiko du otsailetik aurrera. Bertan parte hartzeko gutxienez 6 urte izatea da baldintza. Izen ematea Zegama, Segura eta Zerainen izango da. Egunak: **Zegaman**, otsailaren 2an, arratsaldeko 5etatik 8etara, Kultur Etxean. **Seguran**, otsailaren 2an, arratsaldeko 4,30etatik 7etara. **Zerainen**, otsailaren 2an, Antton Alustizarekin egon behar da

izena emateko.

Norbaiti ordutegi haue-
tan izena ematea gaizki ba-
letorkio, 943 801570 telefo-
nora deitu eta erantzun-
gailuan bere izena eta telefo-
noa utz dezake. Izena eman-
dakoan otsailaren 5ean
egingo da bilera, ordua ze-
haztuko zaielarik apuntatu-
takoei. Honekin guztiekin
batera adierazi, Tobera Mu-
siak Eskolak datorren ikas-
turtea instrumentu bezala
eskaintzeko asmoa duela
urte hasieratik.

Alkatea, epaitua

Joan den astean Zegamako
alkatea, Asun Mendizabal,
epaitua izan zen Udala in-
tsumiso izateagatik. Epaia
sententziaren zain geratu
da.

Edurne Albizu

Garbitasunak
OXEPI
☎ 943 88 96 67 ZALDIBIA

✓ Aholkularitza juridikoa
✓ Entrepresa zerbitzuak
✓ Aseguruak
GERTU ABOKATUAK
Tel./Faxa: 943 16 21 92
Kale Nagusia, 2 BEASAIN

Zorion Insaustiren laguntzaz
Dietetika, senda belarrak, iriodologia,
homeopatia, reflexoterapia podala eta
abarretan aditua
Oreka
Dietetika eta medikuntza naturala
Kale Nagusia, 8
☎ 943 88 13 37
ORDIZIA

AMEBI
Sagardotegia
Urtarrilaren 24an lehenengo urtemuga ospatu dugula eta, eskerrak eman nahi dizkizuegu bezero izan zareten edo bisitatu gaituzuen guztioi
Urtarrilaren 30eko gaua trikitilariekin alaitua izango da
Zubierreka, 9 ☎ 943 16 25 23 LAZKAO

FAGOR
ETXE-AROZKINTZA
Diseinuak neurritan
Erakusketako Tel-faxa: 943 889113
Tel mugik.: 619 487056
Senpere Merkatalgunea, 25 BEASAIN

XENKEGI
ETXE-AROZKINTZA
Diseinuak neurritan
Erakusketako Tel-faxa: 943 889113
Tel mugik.: 619 487056
Senpere Merkatalgunea, 25 BEASAIN

Sukaldeak
Ateak
Zoruak
Armairuak
BEASAIN

Sukaldeak
Ateak
Zoruak
Armairuak
BEASAIN

SEGURA

Erreflexio eguna

Urtarrilaren 30ean, goizeko 11etan kultur etxean antolatutako den batzar irekian, presoen inguruko erreflexio eguna burutuko da. 'Manifestazioak, gose grebak, itxialdiak, mozioak... eta orain zer?' lemapean, herriko alderdiak eta herritar guztiak gonbidatu nahi dira bertara. Erreflexioa aurrez egina izatea eskatzen da.

Otsailaren 13an nazioarteko torturaren eguna dela eta, Segurako preso taldeak antolatuta, torturatuak izan ziren Iruñeako bi gazteren bideoa eskainiko da otsailaren 12an, kultur etxean, gaueko 10etan.

Karta jokoak Atsedenen

Jubilatuak elkarrekin, XIV. mus, tute eta puntu txapelketak antolatu ditu. Bikoteek urtarrilaren 30 arte dute izena emateko epea. Zozketak urtarrilaren 31n eginda, datorren astetik aurrera, astean bi egunetan izango dira partidak. Finalak martxoaren hasiera aldera jokatuko dira.

Pandero ikastaroa

Tobera Musika Eskolak antolatuta, Seguran, Zegaman eta Zerainen pandero ikastaroak antolatuko dira 6 urte-tik gorako herritar guztientzat. Segurari dagokionez, ikastaroak otsailetik ekainera iraungo du eta matrikula egiteko otsailaren 2an (aste-arte) arratsaldeko 4,30etatik 7etara beheko eskoletara

Euskal artzai txakurkumeak salgai

Joxe Mari Lardizabal herritarren euskal arrazako artzai txakurrek bigarren umealdian, bost txakurkume izan berri dituzte. Hamabosten bat egun barru amari kentzeko moduan izango dira. Interesaturik dagoenak dei diezaiola 943-801467 telefonora.

Santa Ageda bezperan kantu eskera

Hiru taldetan banatuta, baserritar jantzita, herritar ugari izango da otsailaren 4ko etxez etxeko kantu eskean parte hartuko duena.

Laiotz Herri Eskolakoak: 3. aldia izango da 3tik 12 urte bitarteko neska-mutikoak ateratzen direna. 14:30etik 16:30era arituko dira herriko kaleetan koplakantari. **Elorri Kultur Elkartekoak:** kantu eskearen ohitura zaharra berreskuratu zutenak, koplariak eta trikitilariak lagun dituztela 18:30 aldera dira Elorripetik irtetzekoak. **Kabalgataren ingurukoak:** 3. aldiz eta

joan beharko da edota 943-801570 telefonora deitu. Ikastaro egunak eta ordutegiak taldeak sortu ahala finkatuko dira. Matrikula 1.700 pezetakoa izango da eta hileroko beste 1.700 ordaindu beharko dira.

Euskal dantza ikastaroa

Laiotz Herri Eskolak antolatuta, eskolaz kanpoko aktibitate modura, dantza ikastaroa eskainiko dute bertako ikasleentzat. Dantza saioak pasa den urtarrilaren 22an hasi zituzten eta ikasturtearen amaiera arte iraungo dute, astearte eta ostiraletan ordu bana emanez. Guztira 32 neska-mutikok eman dute izena eta 3 taldetan banaturik beheko eskoletan ari dira Eider Garmendia irakasle beasaindarraren ardurapean. Ikastaroaren lehen helburua fandangoa eta arin-arina



Santa eskean Axkueta Berri baserrian orain dela 4 urte.

hauek ere trikitilari eta koplariekin, 18:30ak aldera

aterako dira Madalena aldetik.

menderatzea izango da.

Labur-labur

● **Elorriko batzarra.** Elorriko bazkideak, gaur urtarrilak 29, 20:00etan elkartean izango den bilerara deituak daude. Gaiak: 1.-1998ko balantzea eta junta berrietza. 2.-Elkarte berriari begirako informazioa.

● **Iparra-Hegoa zozketa.** IV. Iparra-Hegoa'ko gastuak estaltzeko asmoz

atera zen errifaren zenbaki saritua 1.670 izan da.

● **Bola:** urtarrilaren 17an, erregularitate txapelketako Gabiriko saioan, Joakin Izagirre 3. geratu zen 48 birla jota.

● **Kirol eskolarra:** kategori ezberdinetako 20ren bat neska-mutiko dira urtarrilaren 31ko Idiazabalgo krosean parte hartzekoak.

Joseba Telleria



Errejonlak, 4. postuan dira 3.arekin berdinduta.

Futbola

Asteburuko emaitzak: **Errejonlak:** Segura 3-1 Ilintxa. **Jubenilak:** Aloña Mendi 1-1 Segura. **Kadeteak:** Aizkorri 2-10 Real Sociedad. **Infantilak:** Aizkorri 0-3 Eibar.

Asteburuan etxean: **Errejonlak:** Segura-Aretxabaleta, zapatuan, 16:00etan. **Jubenilak:** Segura-Zumaiako, jaien, 16:00etan.

LAZKAO

Ehundik gora etxebizitza berri herrian

Ez da denbora asko pasa oraindik, Batzokiaren ondoko lur-sailean, hau da, garai bateko 'Tiburtxionen' eta Zubizkitza aldean egiten ari diren etxebizitzak berri eman genizuenetik. Oraingo honetan ere, etxebizitza berri batzuen eraikuntzaz mintzatuko gatzazkizue, Untxundein ondoko obretaz hain zuzen.

Dagoeneko konturatuko zineten lurra ateratzen hasiak direla 2. sektorea deitzen dioten lur sail horretan. Bertan, 100 etxebizitzatik gora eraikiko dira datozen hilabetetan. Momentuz, promozio bakarra hasi da lanean, promozio honek 32 etxebizitza eraikiko dituelarik. Etxebizitza hauez gain, garajeak lokal komertzialak eta abar ere eraikiko dituzte.

Hau da momentuz martxan dagoen obra bakarra, baina, berehala beste promozio pribatu bat ere martxan jarriko da leku berean, hauek, 28 etxebizitza eraikiko dituzte. Pixka bat beranduago, Eusko Jaurilaritzarekin kontzertatutako 16 etxebizitza gehiago egiteko asmoa ere badago, eta azkenik hirugarren promozio pribatu bat martxan jartzeko ideia ere ba omen dago. Denora ehundik gora etxebizitza eraikitzea dago aurrikusita.

Obra hauekin batera egingo da bigarren sektore honen urbanizazioa, eta aldi berean, Olaberrira bidean



Obra hauekin batera egingo da bigarren sektorearen urbanizazioa, eta aldi berean, Olaberrira bidean dagoen errotondari ere, amaiera emango zaio.

dagoen errotondari ere, amaiera emango zaio.

Joxe Antonio Oiarbidearen harategia zegoen etxea ere bota dute edo bidean dira dagoeneko. Etxe zaharra zegoen lekuan, sei etxebizitza berri eraikiko dituzte.

Etxebizitza sozialak eraiki ziren gunean, urbanizazioa egin gabe dago oraindik, honek, badu bere arrazoia, lan horiek egiteko lehiaketa publiko bat egin zen eta hutsik gelditu zenez, proiektua birplanteatu eta berriro lehiaketara ateratzea erabaki da.

dik, honek, badu bere arrazoia, lan horiek egiteko lehiaketa publiko bat egin zen eta hutsik gelditu zenez, proiektua birplanteatu eta berriro lehiaketara ateratzea erabaki da.

Udaltzain berria

Iñaki Belamendia Huarte, 26 urteko lazkaotarra izango da aurrerantzean herriko

udaltzain berria. Lehenengo urtebetean, praktikatan dagoen funtzionaria izango bada ere, urte hori pasa ondoren udaltzain bihurtuko da. Aukeratua izan aurretik, sei proba gairatu behar izan ditu Iñakik. Lehenengo, euskara proba izan zen, gero etorri ziren proba fisikoak, proba teorikoak eta praktikak, azkenik sei lagunen artean aukeraketa egiteko, proba sikoteknikoak eta elkarrizketa pertsonala pasa behar izan zuten.

Azterketa hauek guztiak pasa ondoren, Iñaki izan zen aukeratua, eta beraz, berarekin osatuko da Lazkaoko udaltzainen taldea. Marcial Luisek utzitako postua Mikel Zabalak beteko du, eta Gregorio Carrion eta Iñaki Belamendia izango dira beste bi udaltzainak.

Ansoategi herrikoa

Ansoategi Kultur Elkartek errentan duen Herrikoa tabernako kontratua bukatu denean, uztea erabaki dute bertakoek. Taberna errentan hartzeko interesa dutenek otsailaren 14a baino lehen Lazkaoko 088 posta kuxara eskutitz bat bidali beharko dute. Euskara jakitea derri gorrezkoa da eta tabernarako ideia berri eta asmoak kontuan hartuko dituzte. Bide batez, Ansoategi Elkartekoek eskerrak eman nahi dizkie orain arte taberna eduki dutenei.

Urko Irastorza

Euskara ikastaroa dendarientzat

Bezeroekin euskara jator batean harremanak eduki nahi dituen dendarientzat edo besterik gabe bere euskararen eza gutza hobetu nahi duenarentzat, antolatu da ikastaro interesgarri hau.

Ikastaroa, otsailaren 1an hasiko da, eta martxoaren 25era arte iraungo du. Interesatuta dauden dendariak, bi ordutegi izango ditu aukeran, ordutegi hauek gainera, beraien beharretara egokituak daude. Lehenengo ordutegia, astelehenetik ostegunera, arratsaldeko 2,30etatik 3,45etara izango da, eta bigarrena astelehenetik ostegunera arratseko 8,15etatik 9,30etara.

Izena, Maizpide Euskaltegian (943-889231) edo AEKren Euskaltegian (943-889340) eman beharko da. Ikastaroaren prezioa berriz, 5.600 pezetakoa izango da.

LEIAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea 943 88 60 70

BEASAIN



SAN BENITO IKASTOLA
LAZKAO

943 88 08 00 / 943 16 17 36 Faxe: 943 88 18 16 E-mail: lazkao@ikastola.net

MATRIKULA OTSAILAK 1etik 12ra ZABALIK

- ⇒ 2 eta 18 urte bitarteko heziketa integrala
- ⇒ Eleanitza (euskara, gaztelera, ingelesa, frantsesa)
- ⇒ Proiektu pedagogiko propioak
- ⇒ Bailerako herrietatik garraioa

OLABERRIA

Ertzille-haundiko teilatua behera erori zen



Urtarrilaren 15ean Ertzille-haundi baserriko teilatua behera erori zen. Une horretan bertan, jendea zegoen barruan, baina sustoan bakarrik gelditu zen guztia. Zorionez ez zen kalte pertsonal larriarik izan. Berritze lanetan hasita zeuden Ertzille-haundin, teilatua eta kanpoko hormak mantenduz, barrualdea berritzeko asmotan.

Zezilio-enea ostatua

Aurreko deialdian inor ez zenez aurkeztu Zezilio-enea ostatuaren ardura hartzeko, Udalak deialdi berria egitea erabaki du. Otsailaren 8ra bitartean dago izena emateko epea, Udaletxera deituta (943-881434). Informazio gehiago bertan emango zai-zue. 10 urterako esplotazioa izango da.

Santaeskea

Santa Ageda bezperan, otsailaren 4an, santaeskean

arrituko dira baserriz baserri. Herriko bi koplari eta triki-lariak alaituko dute jarduna. Arratsaldeko 5,30etan aterako dira kantariak, Eskola etxetatik. Iaz berreskuratu zuten santaeske ohitura eta erabat arrakastatsua izan zen.

Amaia Vazquez

Otsailaren 1ean, arratsaldeko 2,45etan, Amaia Vazquez hitzaldia izango da Bikario etxean. Gaia: komunikazioa familiaren barruan.

Taila ikastaroa

Otsailaren 1etik aurrera martxan jarriko da berriro ere taila ikastaroa. Astelehen eta asteartetan egingo da, arratsaldeko 6,30etatik 8,30etara, apirilaren 13ra arte. Ainara Aldanondo izango da irakaslea eta 40 orduko ikastaroa izango da.

Gazteak eskiatzera

Udalak, urtero bezala, 8 eta 18 urte bitarteko gazteen-

tzat, eski irteera antolatu du otsailaren 6an Formigalera. Izena ematerakoan hainbat datu eman beharko dira: izen-abizenak, helbidea, adina, telefonoa, pixua, al-tuera, oinetako neurria, gurasoen baimena... Udaletxean edo liburutegian egin behar da izen ematea. 2.500 pezeta kostatuko da irteera.

Ohitura zaharren argazki erakusketa

Udaleko Kultura Batzordea aurtengo Kultur asterako galtzearen dauden herriko ohiturak biltzen dituen argazki erakusketa prestatzen ari da, aurtengo egutegiaren il-dotik jarraituz.

Erakusketa hau ahal den zabalena eta adierazgarriena izan dadin, herritarren lankidetzaren eskatzen da, ohitura edo ekintza bereziren bat burutzen dutenek batzorde honi jakinaraziz. Harremanetarako telefonoa 943 881232.

ZALDIBIA

Kultur Etxeak hiru ikastaro berri antolatu ditu datozen hilabeteetarako. Lehenik, egur tailaren ikastaroa dugu aurtengo abendura arte luzatuko dena. Irakasle lanetan Mikel Arozena arituko da eta eskola egunak asteartero izango dira.

Bigarrenik eskulanen ikastaroa daukagu. Ines Elorzak zuzenduko ditu klaseak eta astelehenetan emango dira arratsaldeko 2,30etatik 4etara bitartean. Azkenik, eta 10-15 urte bitarteko gaztetxoentzat margoketa eta plastika ikastaroa

izango da Noemiren eskutik.

Ikastaro hauek gustokoa dituenak Kultur Etxera joan beharko du izena ematera otsailaren 4a baino lehen edo telefonoz ere egin dezake 943 160338 zenbakira deituaz.

Euskara ikastaroa

Euskaraz alfabetatzeko ikastaroa antolatu du AEK-k. Interesatuak izena eman Kultur Etxean. Epea otsailaren 4an bukatzen da.

Ikastaro gehiago

Hitzaldiak

Otsailak 4, Beti Gaztek antolatuta 18:00etan Jose M^a Satrustegiren hitzaldia 'Euskal ihauteriak' gaiaren inguruan.

Urtarrilak 29, hitzaldia emango du pedagogo batek ondoko gaiari buruz: 'Pertsonarengan eragina duen ingurunea: pertsonaren inguruan, gizartearen eragina, sistema sozialaren eragina. 20:00etan Kultur Etxean izango da.

Aratz eta Ibon

Aratz Mendizabal eta Ibon

Gurrutxaga zaldibitar pilotari gazteek jubencil mailako Gipuzkoako pilota txapelketarako txartela lortu zuten pasa den ostiralean. Alkizako San Sebastian - Aranzade bikote aurkariari 22-9 irabazi eta gero. Aipagarria da bi mutiko hauen lana, izan ere, adinez kadete mailakoak izan arren goragoko kategoria bateko finala jokatuko baitute. Oraindik ziurtatzeke egonagatik finala asteburu honetan jokatuko dela jakin dugu.

*Iñaki Gurrutxaga
Saroi Jauregi*

Euskadiko kros txapelketa eta Idiazabalgo Herri krosa datozen bi asteburuetan

● Idiazabalgo XIX.

Herri krosa

urtarrilaren 31n

Idiazabal Kirol Elkarteak antolatzen duen herri krosak, XIX. ekitaldia izango du aurtengoan. Urtarrilaren 31n jokatu da, maila ezberdinetan. Irteera baino ordu laurden bat lehenago amaituko da izena emateko epea. Lasterketa bukatzen dutenek domina bana jasoko dute. Kadete eta helduek, dominaz gain, hainbat gauzen zozketan sartzeko aukera izango dute.

Goizeko 11etan hasiko da lasterketa. Benaminek, alebinek eta infantilek hartuko dute parte. Egin beharreko lana hauxe dute: neska eta mutil benaminek, 500 metro; neska alebinek 1.000 metro; mutil alebinek eta neska infantilek, 1.100 metro; eta mutil infantilek 1.900 metro.

Eguerdiko 12etan, helduen txanda izango da. Kadeteak eta helduak, gizonezkoak zein emakumezkoak, batera arituko dira las-

terka. Hori bai, luzera ezberdineko lanak burutu beharko dituzte. Neska kadeteek 2 kilometro egin beharko dituzte korrika; mutil kadeteek eta emakume helduek 4 kilometro; eta gizonezko helduek 10 kilometro.

Gurutze Gorriak kros honetan bere laguntza eta zerbitzuak eskainiko ditu.

● Euskal Herriko kros txapelketa Ezkio-Itsason, otsailaren 7an

XXXV. Euskadiko kros txapelketa izango da Ezkio-Itsasoko Alegia auzoan, otsailaren 7an, goizeko 9,30etan hasita. Horretarako, 2.500 metroko ibilbidea prestatu dute.

Lasterketa mailaka antolatu da. Ordutegia eta bete beharreko lana: gizonezko beteranoak goizeko 9,30etan, 4.900 metro; emakumezko kadeteak, 10etan,

2.400 metro; gizonezko kadeteak, 10,20etan, 4.900 metro; emakumezko beteranoak, 10,50etan, 2.400 metro; emakumezko junior-jubenilak, 11,10etan, 4.400 metro; gizonezko junior-jubenilak, 11,40etan, 6.900 metro; emakumezko senior-promesak, 12,20etan, 6.900 metro eta gizonezko senior-



Korrikalariek aukera ona dute Goierriin bertan beraien maila probatzeko.

promesak, 1,05ean, 11.400 metro.

Proba honetan parte hartzeko izen emateak Gipuzkoako Atletismo Federazioan egingo dira, otsailaren 4ko gaueko 10ak baino lehen. Izena ematerakoan eman beharreko datuak: izen-abizenak, maila, jaioteguna, federazio, lizentzia zenbakia eta klubaren izena.

Sailkapen indibidualetan hiltzen diren postuaren arabera izango da. Klub sailkapenerako talde bakoitzaren lehenengo 4 korrikalariek puntuatuko dute. Lurraldeko sailkapenerako, emakumei dagokionez, lurralde bakoitzeko lehenengo 4ek puntuatuko dute. Gizonezkoiei dagokionez, lurralde bakoitzeko lehenengo 6ek puntuatuko dute. Dorsalak txapelketa egunean, 9etatik aurrera emango dira zirkuitoko idazkaritzan.



☎ 943 88 55 00 ORDIZIA



Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreta, 7 ☎ 943 88 98 44 BEASAIN

JAUREGI

TOLDOAK s/l

Tfnok.: 943 88 02 43

943 88 01 33

BEASAIN

Az gis arapen honen edizioa signatzen.
En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación



Idiazabalgo Reibiax 05 futbol taldea, 1979an

Idiazabalen herriko lagunen artean jokatzeko txapelketan txapeldun izan zen Reibiax 05 futbol taldea, 1979an. Taldekideak, hauexek:

Zutik, ezkerretik eskubira: Pello Intxausti 'Tinín', Juan Ramon Iriondo 'Willi', Lake Oiarbide 'Lake', Juan Urteaga, Alberto Aldasoro 'Ellor' eta Xabier Intxausti 'Gorri'.

Makurtuta: Koldo Egizala, Agustín Urteaga 'Pantxo' eta Tomas Aldasoro.



JASO, EQUIPOS DE OBRAS, S.A.

**Garabi garaiak eta
eraikuntzaren beharrezane
aplikatutako teknologia
modernoak**

- ✓ **Fabrikazioa**
- ✓ **Salmenta**
- ✓ **Alokatzea**



**AENOR-ek
onarturiko
entrepresa
ISO 9.001**



**☎ 943 18 70 00 - Faxe: 943 18 70 20
N-1, 415 Kma. IDIAZABAL**

SEUR

☎ 902 10 10 10 ☎

Fakturazio lekua: **AUTOETXE C.B.**

Salbatore auzoa

10. poligonoa, 18. pabiloia
BEASAIN

ORDUTEGIA: 9:00etatik 13:00 etara
15:00etatik 18:45era

Eskaintza:

*iragarki hau eramanda
5 kilorarte dohainik
Gipuzkoa barruan.*

Martxoaren 15erarteko balioa du eskaintzak.

BONARDI Bilduma



3.400 Pta. bakarrik

60 URTEtik gora



Armazoia
+
Kristala

Lente zurientzako
eskaintza
±4ESF.±2ZIL.



8.700*
Pta.tik aurrera

LENTE PROGRESIBOAK

19.500 Pta.tik aurrera



Multiofertat
MULTIOPTICAS

6 hilerako packa
UKIPEN LENTEAK

14.900
Pta. bakarrik

Eta gainera lenteentzako
kutxatila eta motxila bat opari



MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Ibargarai, 16
Tel. 943 761575
20570 **BERGARA**

Juan Carlos Guerra, 1
Tel. 943 792995
20500 **ARRASATE**

J. M. Barandiaran Enp.
Tel. 943 889988
20240 **ORDIZIA**

ARGAZKIGINTZA DIGITALEAN ERE PROFESIONALAK



ZURE ARGAZKI ZAHARRAK
BERRITZEN DITUGU



ZURE TALDEKO ARGAZKIEK
BEREIZKETAK EGITEN DITUGU



MUNTAIAK

ARGAZKI EDO IRUDI EZBERDINAK
BAT EGITEN
DITUGU

eta gainera, edozein
euskarri digitaletik A4
eta A3 formatoetako
inprimaketa-zerbitzua
eskaintzen dugu...
ARGAZKI PAPEREN
noski



FOTOETXE

NAFARROA, 25 BEASAIN

FOTO
Goen

NAGUSIA, 6 ORDIZIA